

ERABAKI PROPOSAMENA, UPV/EHUko IRAKASLE-IKERTZAILEEN ARLOKO ERREKTOREORDEARENA: IRAKASLE-IKERTZAILE FUNTZIONARIO ETA KONTRATUDUNEN ERRETIRORAKO NEURRI BEREZIAK ESKATZEKO PROZEDURA EZARTZEA

2024ko ekainaren 11n, UPV/EHUren Gobernu Kontseiluak berretsi egin zituen UPV/EHUko irakasle-ikertzaile funtzionarioen Negoziazio Mahaiaren eta UPV/EHUko irakasle-ikertzaile kontratadunen Negoziazio Mahaiaren 2024ko ekainaren 10eko akordioak, bi-biak irakasle-ikertzaile horiek erretiroa hartzeko neurri berezietan buruzkoak, baliorik gabe uzten dituztenak Gobernu Kontseiluaren 2022ko urriaren 20ko erabakiaren zenbait artikulua, irakasle-ikertzaile funtzionarioen irakaslan murrizteari buruzkoak [Erabakia, 2022ko urriaren 20koa, UPV/EHUren Gobernu Kontseiluarena, giza baliabideak arrazionalizatzeko planaren inguruan (I. fasea): erretiro egoerara iragateko neurriak].

Bi akordio horien printzipio nagusi bat da guztiz errespetatzea indarrean dagoen arautegia, dagozkien aplikazio araubide juridikoetan, eta akordioaren bidez hartutako neurriek tratamendu ahalik eta berdinez ematea UPV/EHUUn diharduten enplegatu publikoen kolektibo guztiei.

Akordioaren bigarren atalean aipatzen da irakasle-ikertzaileen irakats ahalmena murrizteko aukera, ohiko erretiroa hartu aurreko lau ikasturteetan, halako moldez, non murrizketa hartzen duten langileek konpromisoa hartzen duten erretiroa hartzeko ikasturteko urtarrilaren 31n edo abuztuaren 31n, betiere betetzen badira Gizarte Segurantzak edo, hala badagokio, Klase Pasiboen araubideak horretarako ezarritako gutxienezko baldintzak.

Gainera, akordioetan ezarritako betekizun eta baldintzez gain, beste neurri batzuk aurreikusten dira, horietako batzuk bateragarriak irakats ahalmena murriztearekin (hala nola genero arrakalarekin lotutako baimen berezia eta ordaindu gabeko eszedentzia, gehenez ere 6 hilabetekoa; edo, irakasle-ikertzaile lan kontratadunen kasuan, txanda kontratu bidezko erretiro partziala); beste batzuk, ordea, ez (adibidez, ordaindutako baimena).

Era berean, irakasle-ikertzaile lan kontratadunek erretiro partziala har dezakete txanda kontratu bidez.

Irakats ahalmena murrizteko, urtean bi deialdi egingo dira, behar bezala iragarriak. Nolanahi ere, Bigarren Xedapen Gehigarriaren arabera, deialdi hau ezohiko izaeraz agitaratzen da.

Publikotasun ahalik eta handiena emateko neurri hauei eta aurkeztutako eskabideak izapidetzeko, prozedura bat finkatu behar da, irakasle-ikertzaileek eskubide hauek eskuratzeko baldintzak, eskakizunak eta epeak arautzeko.

Horregatik guztiagatik, UPV/EHUko errektorearen 2021eko urtarrilaren 28ko erabaki bidez eskuordetu zaizkidan eskumenen arabera (2021eko otsailaren 12ko EHAA), honako hauek eskatzeko prozedura arautuko duen Erabakia ematen dut:

- 1.- Irakasle-ikertzaile funtzionarioen eta kontratadunen irakats ahalmena murriztea, erretiroa hartzeko konpromisoarekin.
- 2.- Erretiro partziala.
- 3.- Ordaindutako baimena edo eszedentzia, erretiro dataren aurreko aldian.

4.- Genero arrakalari loturiko baimen berezia.

Erretiroen Batzorde Teknikoak 2015eko uztailaren 24an sinatutako akordioan (Gobernu Kontseiluak 2015eko urriaren 1ean berretsitakoa) edo Gobernu Kontseiluaren 2022ko akordioan jasotako neurriren bat baliatu duten langileek akordioaren baldintza berberetan jarraituko dute. Hala ere, akordio berri honetan jasotako neurriren bat baliatu nahi badute, dagokion erregularizazioa egingo da.

UPV/EHuko IRAKASLE-IKERTZAILE FUNTZIONARIOEK ETA LAN KONTRATUDUNEK ERRETIROA HARTZEKO NEURRI BEREZIAK ESKATZEA

1- IRAKASLE-IKERTZAILEEN IRAKATS AHALMENA MURRIZTEA

1.1. Xedea eta eremu pertsonala.

Deialdi honetan eskaera egin dezakete, horretarako baldintzak beterik, irakats ahalmena murriztu nahi duten irakasle-ikertzaileek, 2024., 2025., 2026., 2027. edo 2028. urteetako urtarrilaren/abuztuaren 31n erretiroa hartzeko konpromisoarekin, 2024/2025 ikasturteko lehen edo bigarren lauhilekotik hasita.

1.2. Betebeharrak eta baldintzak.

1.2.1. Betebeharrak.

Irakats ahalmena murrizteko deialdira aurkezteko, negoziazio mahaiaren akordioaren bigarren ataleko a) letran ezarritako araubidea aplikatuz:

- Unibertsitate irakasleen kidegoren bateko karrerako funtzionario izatea eta UPV/EHUn behin betiko lanpostua betetzea zerbitzu aktiboko administrazio egoeran, 6 urteko antzintasuna izanik UPV/EHUn benetako zerbitzuan (5 urte, genero indarkeriaren, kontziliazioagatiko eszedentziaren edo kontziliazioagatiko lizentziaren kasuan, gutxienez urtebete murriztu badira zerbitzu aktiboko urteak).
- Unibertsitate irakasleen kategoria bateko lan kontratudun finkoa izatea, UPV/EHUn behin betiko lanpostua betetzea zerbitzu aktiboko administrazio egoeran (edo lanpostua gordetzen duen beste edozeinetan) edo egonkorra edota plaza hutsa betetzen ari den bitartekoa izatea, arduraldi osoan, 6 urteko antzintasuna izanik UPV/EHUn benetako zerbitzuan (5 urte, genero indarkeriaren, kontziliazioagatiko eszedentziaren edo kontziliazioagatiko lizentziaren kasuan, gutxienez urtebete murriztu badira zerbitzu aktiboko urteak).
- Konpromisoa hartzea erretiroa hartzeko ikasturteko urtarrilaren edo abuztuaren 31n, betiere betetzen badira Klase Pasiboen araubideak edo, hala badagokio, Gizarte Segurantzaren araubide orokorrak horretarako ezarritako gutxieneko baldintzak.
- 60-67 urte izatea erretiroa hartzeko unean.

1.2.2. Baldintzak.

Murrizketa baliatuko da soil-soilik ohiko erretiro egunaren aurreko 4 urteetan.

Irakats ahalmena murrizt daiteke Jardun plana edo hura ordeztzen duen sistema aplikatu aurretik, eskala honen arabera:

Ikasturtea eta murrizketa ehunekoa	
Erretiroa hartzeko ikasturtea (EI) ken 3 urte	% 12'5 (1 ordu/aste tutoretza)
Erretiroa hartzeko ikasturtea ken 2 urte	% 25 (2 ordu/aste tutoretza)
Erretiroa hartzeko ikasturtearen aurrekoa	% 37,5 (2 ordu/aste tutoretza)
Erretiroa hartzeko ikasturtea	% 50 (3 ordu/aste tutoretza)

Erretiroa hartzen bada lehen lauhilekoa amaitzean, murrizketa aplikatu ahal izango da azken lau urteetan; hau da, bigarren lauhilekoa ere sartuko da.

Sailen irakaslanaren urte anitzeko plangintzaren barruan, murrizketak metatu ahal izango dira erretiroa hartu aurreko aldiaren amaieran, ikerketa eta kudeaketa ahalmenak mantenduta.

1.2.3. Konpromisoak

Irakats ahalmena murrizteak berekin dakar irakasle-ikertzailearen konpromisoa erretiroa hartzeko bere eskaeran adierazitako egunean; hau da, lehenengo lauhilekoa (urtarrilaren 31) edo adierazitako ikasturtea (abuztuaren 31) amaitzean.

Aurreko paragrafoan aipatutako konpromisoa arrazoi justifikaturik gabe betetzen ez bada, irakasle-ikertzaileak itzuli egingo ditu hartutako murrizketa orduak, eta ordaindu egingo ditu konpromisoa ez betetzeak unibertsitateari eragindako kalte-galerak.

2. ERRETIRO PARTZIALA

Ondoren aipatutako baldintzak betetzen dituzten irakasle-ikertzaile kontratudunek erretiro partziala eskatu ahal izango dute 2024/2025 ikasturtean txanda kontratuaren bidez, Gizarte Segurantzak ezarritako baldintzetan.

Erretiro modalitate hau aukeratzen dutenek sinatuko dute lanaldi partzialeko aldi baterako kontratu bat (erreferentziako lanaldi osoaren % 50).

Kontratu hori lotuta egongo da txandakari baten txanda kontratuarekin.

Lanaldi partzialeko kontratuak iraungo du ohiko erretiro adinera iritsi arte, Gizarte Segurantzaren Lege Orokorren 205.1 a) artikuluan ezarritakoa, Zazpigarren Xedapen Iragankorrean ezarritakoari dagokionez (Gizarte Segurantzaren Lege Orokorren testu bategina onartzen duen urriaren 30eko 8/2015 Legegintzako Errege Dekretuak jaso moduan).

Aurreko ataleko murrizketak bateragarriak izango dira erretiro partzialarekin.

Beraz, bi dira oinarritzko aukerak: metaketarekin eta metaketarik gabe.

2.1. Ordainsariak.

Oro har, erretiro partziala hartzen duten irakasle-ikertzaileek aukeratutako zerbitzu prestazio modalitatea gorabehera (metaketarekin edo gabe), administrazioak ordainduko ditu lanaldiaren % 50ari dagozkion ordainsariak, lanaldi partzialeko kontratuaren indarraldi

osoan, eta alta egoeran jarraituko dute Gizarte Segurantzaren ondorioetarako, erabateko erretiroaren egunera arte.

Lanaldi partzialeko kontratuari dagozkion ordainsariak bateragarriak izango dira Gizarte Segurantzaren araudiak erretiro partzialagatiko pentsio gisa ordezkatuei ezartzen dien pentsioarekin.

2.2. Erretiro partziala eskatzea.

Langileak Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalean egingo ditu erretiro pentsioaren eskaera eta gainerako izapideak. Gainera, erakunde horretara jo ahal izango du erretiro partzialeko pentsioari buruzko edozein zalantza argitzeko (pentsioa onartzea, zenbatekoa edo iraungitzea).

3. ORDAINDUTAKO BAIMENA ETA ESZEDENTZIA

Irakaslana ondo planifikatzeko, bat ez datozenean erretiroa hartu nahi den eguna eta lauhilekoaren edo ikasturtearen amaiera, eskatu ahal izango da ordaindutako baimen bat edo eszedentzia bat, soldatarik gabe, baldintza batzuk betez gero.

3.1. Baldintzak.

Baldintzak betetzen dituzten irakasle-ikertzaileek:

- Ordaindutako baimena hartu ahal izango dute, gehienez ere 6 hilabetekoa, erretiro dataren edo erretiro aurreko eszedentziaren aurreko aldian. Baimen hori **ez da bateragarria** izango irakats ahalmenaren murrizketekin.
- Gainera, eszedentzia hartu ahal izango dute, gehienez ere 6 hilabetekoa, erretiro dataren aurreko aldian. Eszedentzia hori **bateragarria izango da** irakats ahalmenaren murrizketekin. Eszedentzia erabili ahal izango da erretiro data bereizteko ikasturtearen amaieratik edo lehen lauhilekoaren amaieratik, aurreko irakats murrizketak egokituta egutegi akademikora (urtarrilaren 31 edo abuztuaren 31).

4. GENERO ARRAKALARI LOTURIKO BAIMEN BEREZIA

Adingabeak edo mendeko pertsonak zaintzeko eszedentzia, baimena edo lanaldi murriztua hartu duten UPV/EHUko irakasle-ikertzaileek baimen berezia eskatu ahal izango dute erretiroa (edo baimena eta/edo eszedentzia) hartu aurretik, soldata osoarekin:

-Adingabeak edo mendeko pertsonak zaintzeko eszedentzien kasuan, baimen berezia izango da hilabetekoa eszedentzia urte bakoitzeko; gehienez ere 3 hilabetekoa.

-Lanaldi murrizketetan, urteen arabera baliokidea kalkulatu da, eta baimen berezia izango da hilabetekoa kalkulatik ateratako urte bakoitzeko; gehienez ere 3 hilabetekoa.

Baimen bereziaren bi modalitateak metagarriak dira.

Eta bateragarriak dira irakats ahalmenaren murrizketarekin, bai eta ordaindutako baimenarekin eta txanda kontratuarekin ere.

5. IRAKATS AHALMENAREN MURRIZKETAK, BAIMENAK ETA ESZEDENTZIA ESKATZEKO DEIALDIAK ETA PROZEDURA

Aurreko puntuetako baldintzak bete eta erretirorako neurri bereziei heldu nahi dieten irakasleek eskaera aurkez dezakete deialdi honetan, erretiro konpromisoarekin.

5.1 Eskaerak egiteko epea:

Eskaerak egiteko epea izango da deialdi hau argitaratzen den egunaren biharamunetik 2024ko uztailaren 19ra artekoa.

Eskaerak aurkezteko epea igarota, ezin izango da eskatu irakats ahalmena murrizteko 2024/2025 ikasturteko lehenengo lauhilekoa. Halere, 2024 urtea bukatu baino lehen 2024/25 ikasturtekoaren bigarren lauhilekoan edo 2025/26 ikasturtearen lehenengo lauhilekoan hasiko liratekeen murrizketak eskatzeko epea zabaldu da.

5.2 Aurkeztu beharreko dokumentazioa:

Deialdi honetan parte hartu nahi duten irakasleek dagokion eskaera aurkeztu beharko dute, deialdiari atxikitako eredu normalizatuan (l. eranskina).

5.3 Erantsi beharreko dokumentazioa:

- Lan-bizitzaren txostena.
- Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalaren ziurtagiria, langileak erretiro partziala edo behin betikoa (aurreratua edo ohikoa) hartzeko baldintzak zein adinetan betetzen dituen egiaztatzen duena.

Ez da beharrezkoa izango dokumentazio hori aurkeztea Erretiroen Batzorde Teknikoaren 2015eko uztailaren 24ko akordioaren edo Gobernu Kontseiluaren 2022ko urriaren 20ko akordioaren arabera emandako neurriak egokitzeko eskaeretan.

5.4 Eskaerak aurkeztea

Eskaera aurkeztuko da UPV/EHuren erregistro elektronikoa (<https://egoitza.ehu.eus/registro-electronico>), aintzat harturik Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 14 e) artikulua eta UPV/EHUko idazkari nagusiaren 2021eko apirilaren 28ko erabakia, zeinaren bidez onartzen baita UPV/EHUrekin elektronikoki harremanetan jartzen diren pertsonen eta erakundean lan egiten duten langileen identifikazioari eta sinadura elektronikoa buruzko jarraibidea. Eskaera igorriko zaio Irakasle-ikertzaileen arloko errektoreordeari, helbidean idatzirik Irakasle-ikertzaileen arloko Errektoreordetza/Irakasle-ikertzaileen Zerbitzua U020000273. Honako hauetako bat erabiliko da: UPV/EHUko langilearen ziurtagiri elektronikoa, Izenperen Erabiltzaile Ziurtagiri Digitala, NAN elektronikoa edo Diruaren edo Zerga Zigiluaren Fabrika Nazionalaren ziurtagiria (FNMT-CERES).

Gainera, eskaera aurkeztu ahal izango da ere sektore publikoko beste edozein erakunderen erregistro elektronikoa eta, ohiz kanpoko kasuetan, erregistro gaietan laguntzeko UPV/EHuren bulegoetan, aurrez aurre. Erregistro gaietan laguntzeko UPV/EHuren bulegoetan aurkeztutako eskaerak eta dokumentuak digitalizatu egingo dira, administrazio espediente elektronikoa sartzeko, eta jatorrizkoak itzuliko zaizkio interesdunari, interesduna funtzionarioaren aurrean identifikatu eta horrela jarduteko berriazko

adostasuna adierazi ondoren, aintzat harturik UPV/EHUko idazkari nagusiaren 2021eko apirilaren 28ko Erabakian adierazitakoa, zeinaren bidez onartzen baitira gai hauei buruzko jarraibideak: erregistro gaietan laguntzeko bulegoak; eskaerak, idatziak edo bestelako komunikazioak funtzionario publiko gaituaren bidez aurkeztea UPV/EHU; eta funtzionario publiko gaituen erregistroa.

5.5 Eskaeren ebazpena

Eskaerak aurkezteko epea amaituta, Irakasle-ikertzaileen arloko Errektoreordetzak hartutako erabakiaren proposamenaren berri emango die eskatzaileei eta haien sailei, erabakiaren aplikazio-epea baino lehen eta, edozein kasutan, eskaria egin denetik hiru hilabete igaro baino lehen.

6. AURREKONTU ERABILGARRITASUNA

Eskaerak onartzeko, baldintza izango da une horretan aurrekontu baliabideak izatea, behar bezala egiaztatu beharko direnak.

7. AHALMEN MURRIZKETA KONPENTSATZEKO SAILEN ESKAERAK

Irakasleen sailek plaza berriak eskatu ahal izango dituzte, eskaera bidalita gestion.vicer.pdi@ehu.eus helbidera (doktore laguntzaile plazak normalean), aurre egiteko irakats ahalmenaren murrizketari. Plaza onartzea egongo da sailaren egoeraren eta erretiro konpromisoaren mende.

Irakasleen ahalmenaren murrizketari aurre egiteko, haien atxikimendu-sailek 2024ko irailaren 6ra arteko epea izango dute eskatzeko, gestion.vicer.pdi@ehu.eus mezu bat bidaliz, giza-baliabide berri bat – oro har, irakasle laguntzaile doktore plaza bat. Eskaera hori Unibertsitate Irakasleen Batzordeak aztertuko du, Sailaren epe ertaineko irakats egoera kontuan hartuz.

8. BALIABIDEAK

Administrazio bidea amaitzen duen erabaki honen aurka jarri ahal izango da aukerako berraztertze errekurtsioa, hilabeteko epean, Irakasle-ikertzaileen arloko errektoreordearen aurrean, edo zuzenean administrazioarekiko auzi errekurtsioa, dagokion Epaitegian, bi hilabeteko epean, kontatzen hasita argitaratu eta hurrengo egunetik.

Federico Recart Barañano

IRAKASLE-IKERTZAILEEN ARLOKO ERREKTOREORDEA

VICERECTOR DE PERSONAL DOCENTE E INVESTIGADOR

Errektoreak eskuordetuta, 2021eko urtarrilaren 28ko Erabakiaren bidez (2021eko otsailaren 12ko EHAA)/ Por delegación de la rectora efectuada mediante Resolución de 28 de enero de 2.021 (BOPV de fecha 12 de febrero de 2021)